

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2023ko abenduaren 28a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Noemi Ostolaza Arkauz eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Inaxio Alguacil Barrenetxea zinegotziak (EH Bildu) eta Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziak (EAJ) adierazi dute ezin zutela etorri eta, beraz, ez dute bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2023ko urriaren 26ko udalbatzarraren ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 10/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 11/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, etxez etxeko laguntza-zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren arteko hitzarmena luzatzeko eranskina.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2023KO URRIAREN 26KO UDALBATZARRAREN OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du alkateak testu berri bat ekarri diola aipatutako aktaren gai-zerrendako 10. puntuan (eskariak eta galderak) esandakoak jasotzeko. Testuak honela dio, hitzez hitz:

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du mahai gainean jarri nahi duela denoi tripak mugitzen dizkigun gaia: Israel eta Palestinako gatazka, non zibilak ari diren sufrimendua jasaten. Adierazten du bere asmoa zela udalbatzarrera adierazpen xume bat ekartzea, eta horren bidez eskatzea nazioarteko erakundeei irtenbide baketsu bat emateko gatazkari, laguntza humanitarioa bermatuz eta zibilen kontrako erasoak geldituz. Adierazten du, baita ere, udalbatzar honek, herriaren izenean, lortu dezakeela batasuna eta gaia landu daitekeela datorren udalbatzarrerako, adierazpen bateratu bat lortzeko.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du, azken puntuan mozio bat onartu dela aho batez, UEMArena, dagokion batzordean duela aste eta erdi landu ondoren. Kasu honetan, ordea, udalbatzarraren eguerdian jaso du mezua, deitzeko eskatuz eta hizketaldi horretan adierazi dio Noemik mozio hau gaurko udalbatzarrera ekartzeko asmoa. Ondoren, testu-proposamentxo bat bidali dio Noemik whatsapppe. Alkateak, gaia bere taldearekin partekatu ostean, hau adierazten dio EAJ taldeari: dagoeneko badirela 75 urte Palestina jazarria

dela. Gatazka guztiek bezala, honek ere erpin eta izkina asko ditu eta udal-adierazpena modu honetan egiteak ez du aukera ematen gaiak eskatzen duen mimo eta sakontasunez jarduteko. Ondorioz, alkateak proposatzen du hurrengo udalbatzarrerako uztea gaia, aurretik lantzeko borondatea erakutsiz. Adierazten du, baita ere, bat egiten dutela sufrimendu horrekin eta munduan dauden beste sufrimendu guztiekin eta, ondorioz, prest daudela behar diren lanketak egiteko, betiere dagozkion moduak eta formak errespetatzen badira.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bera ados dagoela 2023ko urriaren 26ko udalbatzarraren ohiko bilkurako aktaren zirriborroarekin, idazkariak jasotako terminoetan, eta, beraz, ez duela ikusten gai-zerrendako 10. puntuaren idazketa aldatzeko beharrik. Hori dela eta adierazi du bere talde politikoa abstenitu egingo dela bozketan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkateak aktaren gai-zerrendako 10. puntuaren idazketari egindako oharra ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH Bildu), Santamaria (EH Bildu), Ibarguren (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Makazaga (EH Bildu), Solabarrieta (EH Bildu), Lizarralde (EH Bildu) eta Rementeria (EH Bildu), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira **BI ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA 2023ko urriaren 26ko udalbatzarraren ohiko bilkuraren akta, bertan txertatuz aktaren gai-zerrendako 10. puntuaren idazketari alkateak egindako oharra, goian jasota dauden bezala.

Emandako botoak azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, eta adierazten du ohar horiek bere talde politikoen izenean egin dituela, udalbatzarraren grabazioa ikusi ondoren, eta, bere ustez, beharrezkoa zela testua egokitzea.

2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 10/2023 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 10/2023 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 117.227 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko abenduaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 10/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 117.227 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 11/2023 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 11/2023 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 45.326 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko abenduaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAICA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 11/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 45.326 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoari deigarri egin zaiola 2023ko ekitaldi honetan kreditua aldatzeko 11 espediente onartu izana; hau da, ia espediente bat hileko, kontuan izanda abuztuan ez dela udalbatzarrik egiten. Adierazten du bere talde politikoari gustatuko litzaiokeela datozen ekitaldietan tramitatutako kreditua aldatzeko espedienteen kopurua gutxitzea.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, eta adierazten du ohikoa dela Orioko Udalak kredituak aldatzeko espedienteak tramitatzea eta aurreko agintaldian ere berdin egiten zela. Adierazten du Orioko herriak ez duela industria-eremurik eta, beraz, diru-sarrera mugatuak dituela. Hori dela eta, udal-aurrekontuak aho batez onartzen diren arren, inbertsionarako partida irekiak laga behar izaten dira eta horrek nahitaez dakar gero kreditua aldatzeko espedienteak tramitatu beharra, kreditua transferitzeko modalitatean edo kreditu gehigarrien modalitatean. Bukatzeko, Anuska Esnal alkateak adierazten du Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) ez zuela gai honi buruz ezer esan Barne Antolaketa batzordeak abenduaren 22an egindako bilkuran.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ETXEZ ETXKO LAGUNTZA-ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEKO ERANSKINA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Eranskin horren bidez, urte natural batez luzatzen da hitzarmenaren indarraldia: 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra. Eranskinak jasotzen ez dituen kontu guztietan indarrean jarraituko dute hitzarmenaren klausula eta xedapenak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak 2023ko abenduaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ONARTZEA etxez etxeko laguntza-zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren arteko hitzarmena luzatzeko eranskina.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmena luzatzeko eranskina sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak urte berri ona opa die guztiei eta bilkurari amaiera eman dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,